



VII. Arte Garaikideko Dokumentazio Zentroen Topaketak

Artiumeko Liburutegi eta Dokumentazio-Zentroa

2014ko urriaren 29an eta 30ean. Artium Museoa
Informazio-zerbitzuen lidergoa XXI. mendean

Ateneu Barcelonès-en ondarea edo P@trimonio

Hitzaldia: Lluís Vicente

Ateneu Barcelonès-eko Arxiu Històric-en Liburutegiaren
zuzendaria

Ateneu Barcelonès-en ondarea edo P@trimonio

Sarrera

Duela 150 urte baino gehiago, betiere eztabaida intelektualen gunea izateko borondatearekin, Kataluniako gizarteari eta kulturari laguntzen dion elkarte bat da Ateneu Barcelonès izeneko erakundea. Elkarte honen helburu nagusien artean, honako hauek dira aipagarrienak: hiritarren autoprestakuntza kulturala sustatzea, gizarte zibilarekiko elkarrizketa irekia, zeharkakoa eta eraikitzailea bultzatzea, eta katalan hizkuntzaz bideratzen den zabalkunde kulturalaren ardatza izatea. Horrez gainera, Kataluniako liburutegi zibil pribatu nagusietako bat dauka erakunde honek bere esku, ondare-bilduma bibliografiko garrantzitsu batekin. xx. mendea baino lehen argitaraturiko elkarrearen funtsen % 40 ez da aurkitzen beste liburutegi katalanetan. Izan ere, ikerlari askorentzat, liburutegi hau izan zen, xix. mendearen amaiera aldean, europar pentsamoldea Espainian sartu zuenetako bat. Liburutegiaren baitan gainera (BAB) Artxibo Historikoa dago, zeinaren bidez gure herrialdeko xix. mendea eta xx. mendearen hasiera jarraitu eta azter baitaiteke.

2004. urtean, erakundearentzat atzeraldi argia suposatu zuen une batean, Oriol Bohigas arkitektoa lehendakari zuen Zuzendaritza Batzordearen eskutik, erakundearen zerbitzuak eta erakundea bera berregituratzeko prozesu bat jarri zen abian, bertako lantaldea profesionalizatuz eta gizartera gehiago zabalduz. Zentzu horretan, egiturazko aldaketa garrantzitsuak ere hasi ziren BABen egiten, besteak beste katalogoaren informatizazioa edota dokumentu-funtsen eta bilduma bibliografikoen berregituratzea. Aldaketa horiek guztiak eta erakundeak bere osotasunean bizi izan zuen aldaketa garai berean gertatu zirelarik, elkarri eraginez eta bultzatuz, xix. mendeko erreferentia izandako liburutegi bat xxi. mendeko liburutegi moderno bat izatera igaro zen, xx. mendetik igaro gabe kasik, herrialdearen egoera historikoa zela medio.

Ondorengo artikuluan, aldaketa honen lau zutarrak aurkeztuko dira: digitalizazioa eta preserbazio digitala, **Projecte Almirall: Portal del pensament i cultura del segle XIX i XX, L'Arxiu de la Paraula, @teneu hub**. proiektua.

1. Digitalizazioa eta preserbazio digitala

2005etik aurrera, zenbait digitalizazio-proiektuekin elkarlanean hasi zen BAB. Bertako bilduma bibliografikoen eta hemerografikoen berezitasuna, garrantzia eta kontserbazio-egoera zirela-eta, gai zen ekimen garrantzitsuetan parte hartzeko, nola diren Kultura Ministerioko Portal de Prensa Histórica,¹ Archivo de Revistas Catalanas Antiguas (ARCA),² Aula Marius Torres³ eta Google Books proiektua.⁴ Lehen hiruretan aldizkako argitalpenak landu ziren, eta, laugarrenean, xix. mendea baino lehenagoko monografiak.

Erakunde publikoekin nahiz ibilbide luzeko enpresekin lankidetzan arituz, prozesu eta helburu argi eta ongi egituratuekin, BABeko lantaldeak ezagutu eta ulertu ahal izan zuen

1 <http://prensahistorica.mcu.es>

2 <http://www.bnc.cat/digital/arca/>

3 <http://www.catedramariustorres.udl.cat/>

4 <http://books.google.es/>

nola prestatu eta bere gain hartu digitalizazio masiboko proiektuak. Portal de Prensa Histórica izenekoaren kasuan, huraxe izan zen Administrazio edo erakunde ondaredun batekin izandako lehen esperientzia. Erakunde horrek egin beharreko bidea erakutsi zuen: besteeikiko lankidetzak. GoogleBooks-ekiko elkarlana izan zen alderdi hori bera indartu eta sinergia berriak sortuko zituen beste proiektu bat. Aipagarria izan zen Kataluniako Liburutegiak proiektu hari ekarritako lidergoa, zeinean, Ateneuaz gainera, beste hiru liburutegi pribatu ere izan baitziren, funts garrantzitsuak zituztenak, bere historiagatik eta ibilbideagatik, Katalunia ulertzeko batez ere: Apaizgaitegi Nagusiko Liburutegi Publikoa, Centre Excursionista de Catalunya izenekoa eta Montserrateko Liburutegia. BABen gainean izan zuten eraginera itzuliz, mugarririk gertatu zen Googlerekin egindako digitalizazioa:

- Liburukiei zegokienez, horrek esan nahi zuen denboraldien arabera berrantolatu eta sailkatu zirela monografiak bildumak, gogoan harturik gainera egile-eskubideen aldetik egon zitezkeen auziak.
- Prozesuei zegokienez, eta BABeko katalogoko liburukien informatizazioaren alorrean, lantaldearen lehentasunen lehen berrantolaketa suposatu zuen. Dokumentuen prozesatzeari zegokionez, egiaz berezia eta garrantzitsua izanik, definitzen hasi ziren digitalizatzea merezi zuten materialen katalogazioaren lehentasunak, egile-eskubideen alorreko mugarririk gabe. Politika horrek bere horretan jarraitzen du gaur egun ere.
- Lantaldeari zegokionez, proiektuak ekarpen garrantzitsu bat egin zuen digitalizazioaren alorrean, logistikan eta era honetako ekimenen antolamenduan, eta funtsezkoa izan zen gerora etorri ziren digitalizazio proiektuetan.

2008tik aurrera, beste digitalizazio batzuk erantsi behar zaizkie aipaturiko lehen ekimen horiei, elkarlanean egin ez zirenak, Kulturako Ministerioak urtero antolatzen dituen dirulaguntzetarako deialdietatik abiatuta. Horien bidez digitalizatu ziren, eta digitalizatzen dira gaur egun, aurreko elkarlan-proiektuetan jaso ez ziren dokumentu motak. Eskuizkribuen funtsak dira, eta arreta berezia eskaintzen zaio antzerkiari; badira hitzaldiak inprimatuak dituzten foiletoak; inkunabileak; **Almirall proiektua** deituaren garapenarekin loturiko monografia batzuk. Eduki horiek gehienek interes berezia dute XIX. mendean eta XX. mendean hasiera aztertzeko. Azkenik, lehen mundu gerrako argazkien bilduma bat digitalizatu zen, Katalunian nahiko berezia gertatzen dena.

Horiek denak eskura daude Memòria Digital de Catalunya izenekoaren bitartez,⁵ zeinak bermatzen baitu 2011z gero Europeanaren⁶ objektu digitalen bilduma. 2013 ezker, lehen mundu gerrako bildumarekin, Europeana 1914-1918 proiektuan ere parte hartzen du Ateneuk.⁷

Hala bada, digitalizazio-eginkizun horren ondorio gisa, eta digitalizaturik sorturiko dokumentuak jasotzen hasita –jardueren argazkiak, bideo edo audioan grabaturiko hitzaldiak, etab.–, TB kantitate garrantzitsu bat hasi zen metatzen, denbora gutxian zaintzeko. 2010ean beharrezkotzat jo zen Digitalizazioko eta Preserbazio Digitaleko Lantalde bat sortzea, OAS ereduaren arabera, ondoko ekimen hauek bideratze aldera:

5 <http://mdc1.cbuc.cat/>

6 <http://www.europeana.eu/>

7 <http://www.europeana1914-1918.eu/en>

1. Dokumentu digitalizatuen eta digitalizaturik sorturiko dokumentuen sorrera- eta erosketa-iturriak identifikatu eta ordenatu, bai iturri ohikoak eta arruntak, bai ezohikoak.
2. Digitalizaturik sorturiko erakundearen dokumentuen ohiko atzitze-prozesuen definizioa egin, gaurko irudien eta kultura-jardueren grabazioena bereziki, baina baita beste ekoizleenak ere.
3. Preserbazio-formatuen ezaugarri teknikoak berrikusi eta aurrez definitu (irudia, soinua, bideoa...).
4. Digitalizaturik sorturiko artxiboen edo artxibo digitalizatuen sorrera-erantzuleak finkatu.
5. Digitalizazio-mapa bat egin, hurrengo digitalizazio-proiektu propioetarako.

Lan horren emaitza gisa, OAI eskema osoaren hutsune nagusia identifikatu zen: preserbazio digitalaren sistema. Ateneuaren neurriko erakunde batek ez zeuzkan xede horretarako beharrezkoak ziren azpiegitura eta giza baliabideak. Era berean, ezin zituen bereak horretara bideratu, bestelako lehentasunak baitzituen: jarduerak, bazkideentzako zerbitzuak... Zenbait esternalizazio-aukera aztertu ondoren, 2011n kopia digitalak bere COFRE (COnservem per al Futur Recursos Electrònics) preserbazio-plataforman gordetzeko aukera eskaini zuen Kataluniako Liburutegiak. Alternatiba hori 2011n kaleratu zen, eta hoberena zen, erakunde katalan honen fidagarritasuna gogoan izanik. Elkarlanaren bidez berriz, dagoeneko ia 8 TB ondare digital integratu duen erantzun positiboa lortu zen.

Azkenik, 2010. urtetik aurrera, moteldu egin zen digitalizazio masiboaren prozesua, eta, preserbazio digitalaren auzia konpondua zegoelarik, Ateneuaren ondarearen zabalkunde eta sustapen digitalera eta proiektu digital berrietara bideratu ahal izan ziren lantaldearen eginahalak.

2. Almirall proiektua: xix. mendeko pentsamenduaren eta kulturaren ataria

Proiektu hau BABen bi alderdi guztiz berezik markaturiko agertoki baten baitan sortu zen. Aurreneko alderdia berezkoa du: bilduma bibliografikoaren balioa eta haren testuinguru historikoa. xix. mendeko Katalunian, liburutegi unibertsitarioak gainbehera zetozelarik, eta bestelako eginkizunetan murgilduak zeudelarik (desamortizazioetatik zetozen funtsak prozesatzen esate baterako), erakunde zibilen liburutegi pribatuek berebiziko protagonismoa hartu zuten. Hainbat ikerlarik azpimarratu dute nola, berezitasun hori zela-eta, zenbait erakunde pribaturen liburutegiak –Centre de Lectura de Reus, Ateneu Barcelonès edota Bartzelonako Arús Liburutegia, beste askoren artean–, funtsezkoak gertatu ziren katalan intelektualek kanpora begiratu eta iraultzen Europar gertatzen ari zen guztia beregana zezaten. BABen kasuan konkretuki, erakunde honen ondare-funtsak, gorabehera gutxirekin, bere garaiko erradiografia dira, hots, xix. mendean intelektual katalanek irakurtzen zituzten liburuen argazkia. Bigarren alderdia koiunturala da: lankidetzaren bitartez, ARCA edo Google bezalako proiektuek badituzte BABen ondare digitalizatua daukaten atariak edo biltegiak. Biltegi edo errepositorio horiek hainbat baliabide bideratzen zuten jadanik beren edukiak zabaltzera, eta, hortaz, ez zen derrigorrezkoa gure erakundeak beste horrenbeste egitea. Egoera halakoa izanik, zergatik ez sortu beste errepositorio bat, kopia digitalizatu horiek errepikatu gabe, ondare bibliografiko digitalizatu hori dena bere testuinguruan kokatzeko

eta barne-harremanak azaltzeko? Liburutegi berezi baten aurrean baldin bagaude, zeinaren funtsak kulturaren harreraren eta historiaren lekukoak baitira, zergatik ez zerbitzu-tankera berri bat proposatu, kopia digitalizatura sarbidea emango duena, erantsiz gainera hartzaileei buruzko testuinguru historikoa?

Hala bada, **Projecte Almirall: Portal del pensament i cultura del segle XIX i XXs** izeneko kulturaren ikerketa eta zabalkunderako atari bat da, zeinaren xede nagusia baita bere kontestuan jartzea eta azaltzea nola heldu ziren Kataluniara eta Espainiara europar joera kulturalak, eta nola joera horiek markatu zituzten eta eragin zieten pentsalari, intelektual, politikari eta artistei xix. mendean zehar eta xx. mendearen lehen urteetan. 1.000 eta 2.000 hitz bitarteko artikulua zientifiko originalen bitartez –hemendik aurrera, objektu digitalak–, proiektuak jakinarazi eta azaldu nahi ditu Espainiaren arrazoi kulturalak eta sozialak estatu moderno baten osaketarako funtsezkoa izan zen garai batean, hori guztia Espainia garaikidean gertatuaren sorburua baita. Proiektu hau bi koordinatzaile zientifikok ikuskatuko dute.

Hona hemen proiektuaren helburuak eta interesak:

- Katalunian eta Espainian zer irakurtzen zen azaldu, eta nolako eragina izan zuten irakurketa horiek pentsamenduaren garapenean; xix. mendeko eta xx. mendearen hasierako kultura eta pentsamoldea azaldu, liburutegietan eta ondare-zentroetan zeuden obrek eta egileek sorturiko kultura-esparruaren bitartez. Diskurtso hori europar eta espainiar obra eta egileei buruz diharduten ikerlariak idatzitako artikuluen bitartez tankeatzen da.
- xix. mendeko eta xx. mendearen hasierako Espainiako kulturaren historiaz, pentsamoldeaz, ideiez, zientziak, arteaz eta gizarteaz dauden informazio-baliabideak komunitate akademikoaren eta ikerlarien esku jarri.
- Alor honetako ikerketa-zentro guztien arteko lankidetzak bultzatu, eta funts aberatsak dauzkaten Espainiako eta Kataluniako beste ondare-liburutegien digitalizazioa ekar dezaketeko dinamika zabaltu.

Ikusten denez, ekimen honek Espainiako eta Kataluniako beste liburutegiekiko lankidetzak bilatzen du, zeinek bere errepositorioetan digitalizaturiko funtsak ekarriko baititu. Beste zentroen ikuspegiaren berri izanik bakarrik osatzen da diskurtso zientifikoa. Gaur egun, proiektu honetan parte hartzen dute, zuzenean nahiz zeharka, ospe handiko erakunde askok, besteak beste Kataluniako Liburutegiak, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoak, Bartzelonako Unibertsitateko Intelektualen Historiaren Ikasketa Taldeak; horrez gainera, zeharka, parte hartzen dute halaber aipatu berri ditugun errepositorioek, hauekin objektu digitalak atariko objektuekin lotzen baitira.

2010ean proiektua sarean jarri zenetik, honako hauek izan dira emaitzak:

- 360 artikulua zientifiko inguru idatzi dira, obra, egile eta gaien arabekoak, eta horietako asko gaztelaniara itzuli dira. Positibismoak, darwinismoak, erromantizismoak edo aurreramendu teknikoak izan zuten harrera aztertu da artikulua hauetan.
- 26 ikerlarik parte hartu dute; doktorego-ikasleak, doktoreak eta katedradunak dira, Bartzelona, Girona, Lleida, Bartzelonako Unibertsitate Autonomokoak, Kataluniako Politeknikoak edo Oberta de Catalunyakoak.

8 almirall.ateneubcn.org:9080/Almirall/Index.do

- Zenbait ondare-liburutegik ere parte hartu dute proiektuan, baina presentzia formal eta iraunkorrik gabe. Espero da etorkizunean elkarlan iraunkorrak bideratu ahal izango direla, bai zentro ondaredunekin, bai Espainiako beste unibertsitateetako ikerlari talde gehiagorekin.
- Atariak, batez beste, hilean 146 bisitaldi izaten du.

Zabalkundearekin loturiko alderdiei dagokienez, bai ikerlariarentzat eta bai herritarrentzat, ondoko hauek azpimarratuko ditugu:

- Institut d'Estudi Catalans erakundeak antolaturiko 2012ko Zientziaren eta Teknikaren Historiaren XII. Topaketan aurkeztu zen proiektua. Poster zientifiko hoberenaren saria irabazi zuen.
- Edukien zabalkundea sustatzeko, estekak dituzte Wikipedia eta ARCArekin.
- Proiektuaren edukietatik abiatuta, Europeana liburutegi europarrean erakusketa birtual bat antolatu da, La recepción de Darwin a Cataluña y España gaiarekin,⁹ zeinean 15 erakunde parte hartu duten.
- Proiektuak ikerlarien curriculumean izan dezakeen eragin zientifikoa hobetze aldera, Cercles ideien eta intelektuaren historia-aldizkariarekiko elkarlanari ere ekin zaio.¹⁰

Azkenik, proiektu hau ohiko errepositorioak ez bezalako delarik, software libre guztiz malgu eta eskalagarritasun handiko bat hautatu zen, Fedora.¹¹ Egokikortasuna da software honen puntu positiboa, eta negatiboa, berriz, ia atari guztia taxutu eta programatu behar izaten dela. Lantaldeak proiektu digital eta erronka berriei heltzeko behar zituen ezagutzak eskuratu zituen.

3. L'Arxiu de la Paraula 12

Digitalizazio eta Preserbazio Digitaleko Lantaldeak egin zituen lanen artean, bereziki aipagarria da digitalizazio-mapa, zeinaren bitartez ezin argiago azaldu baitzen erakundearen soinu-funtsaren digitalizazioa abian jartzeko premia larria.

Ia 4.000 audio-orduko funtsa da, erakunde honetan 1973tik gaur egun arte izan diren hitzaldiak jasotzen dituena. Funts honen parte handi bat –1973tik 2004rainokoa– kaseteko zintetan dago. Edukiari dagokionez, bertan dira Trantsizioari buruzko debateak, Autonomien Estatuari edo Kataluniako hizkuntza-murgiltzearen sistemari buruzko eztabaidak. Gai horiek denak erakunde honetan landu ziren, hitz egiteko eta eztabaidan jarduteko gaur adina leku ez zegoen garaian.

Funts hau digitalizatzeko premia berebizikoa zen, gogoan izanik, batetik, haren garrantzi historikoa eta berezitasuna, eta, bestetik, egoera fisikoa eta ikerlarien eta hiritarren aldetik jasotzen ziren kontsulten kopurua, horrek guztiak kalte egiten baitzion zinten kalitateari. Bestalde, derrigorrezkoa zen eduki horiek sarean zabaltzea, eta aldatu berria zen erakundearen Batzorde Nagusiak egindako eskarietako bat zen gainera.

⁹ <http://exhibitions.europeana.eu/exhibits/show/darwin-darwinism>

¹⁰ http://www.ub.edu/gehici/revista_cat.htm

¹¹ <http://fedorarepository.org/>

¹² <http://arxiudigital.ateneubcn.org/>

Projecte Almirall edo azaldu berri diren beste digitalizazio-proiektuak ez bezala – aurrekontu-murrizketarik gabeko garaietan garatu baitziren haiek, eta krisiarekin jarduerak moteldu ziren arren, ez ziren erabat gelditu–, *L'Arxiu de la Paraula* ('Hitzaren artxiboa') 2011. urtean hasi baitzen, giro desegokian sortu zela esan daiteke, baliabide ekonomiko eta giza baliabide berezirik gabe. Ezin ziren digitalizazioa eta dokumentuen prozesatzea esternalizatu, ezta artxibo digitalak zabaltzeko softwarerik erosi ere. Bestalde, ez zen diru-laguntzak edo babesleak erakarriko zituen proiektu mota. Hortaz, garapen ekologiko eta iraunkor baten aldera egin zen, eskura zeuden baliabideetan oinarriturik, oraindik ere badiraute eta garatzen ari diren ondorengo osagai hauekin:

- Digitalizazioa, katalogazioa eta datuen sarrera errepositorio berri batean bilduko dituen lan-prozesu baten definizioa. Digitalizazio-prozesuan kontuan hartzen da grabazioaren birmasterizazioa eta aldi berean ahalik eta informazio gehiena ateratzea, ondorengo katalogazioa egiteko. Era horretan, informazio asko aterea egonik, murriztu egiten da grabazio bidezko katalogazio-denbora.
- Audio-dokumentuen grabazioaz eta digitalizazioaz arduratzen den lantaldearen espezializazioa. Prestakuntza hau dela medio, hondatzen hasiak zeuden zinten edukia berreskura daiteke, eta jaso daitezke preserbazio digitalerako datu teknikoak.
- Egile- eta irudi-eskubideen kudeaketaren hasiera, grabazioak Interneten zintzilikatu ahal izateko. Prozesu hau abian da, lantaldeko pertsona bat horretara jarrita. Alderdi hau garrantzitsua da, ez bakarrik proiektu honetarako, baita erakundearen gainerako jarduera kulturalerako ere. Hau da, proiektuaren premia batek erakundearen berezko hutsune bat betetzen du.
- Digitalizazioa Lantaldeak eskatzen duen preserbazioaren kalitatea bermatzen duten talde semi-profesionalekin egiten da, eta software librea erabiltzen da zintatik artxibo digitalera igarotzeko: Audacity.¹³
- Software libretik abiatuta, audio-dokumentuen streaming-a ahalbidetuko duen errepositorio bat garatzea. Omeka¹⁴ da software libre hori, zabalkunde-errepositorio bat, edukiak hainbat modutara ordena daitezkeena eta hainbat eratako sarbidea eskaintzen duena, baita erakusketa birtualak edo interesguneak sortzeko aukera ere. Projecte Almirall delakoaren esperientzian oinarriturik aukeratu zen Omeka, preserbazio digitala ordurako COFREren bidez estalia egoteak ematen zuen askatasunarekin.
- Digitalizazio-politikak ezartzea, sareko grabazioaren eraginaren eta kontserbazio-egoeraren arabera. Ezin ziren baliabideak bideratu 4.000 orduko digitalizazio estensibora, baina aukera bat egin zitekeen, eta xede errealistak markatu: urtean 300 zinta prozesatu. Modu horretan, gainera, gaur egungo interesarekin eta une sozial, ekonomiko eta politikoarekin lotzen da objektu digital berria. Eredutik bidez, bermatua geratzen da, gaurkotetasunaren eta egokitasunaren aldetik, ahalik eta etekinik handiena aterako zaiela edukiei; hala, esate baterako, egungo debate soberanista dela-eta, debate horrekin zerikusia duten zintak digitalizatu dira. Orobat gertatu da zenbait gertaeraren ospakizunarekin, Kataluniako Mancomunitat-aren mendeurrenarekin esate baterako.
- Erakundearen sustapen-bideak (sare sozialak, jarduera-libretoak, web korporatiboa...). erabiltzen dituen komunikazio-politika bat osatzea. Era horretan, erakundearen egunerokotasunarekin lotuko dira eduki digital berriak.

¹³ <http://audacity.sourceforge.net/?lang=es>

¹⁴ <http://omeka.org/>

Horrez gainera, beste soluzio batzuk ere inplementatu dira, besteak beste Liburutegiko interesguneen parekoak sortzea errepositorioan, antzeko gaia lantzen duten liburuekin.

- Tresna mugikorrei egokituriko bertsioaren garapena, dokumentuetara edozein plataformatatik heldu ahal izateko moduan.

Alderdi horiei guztiei erantsi behar zaie jasotzen eta biltegitratzen hasi garela gaur egungo audio- eta bideo-grabazioak. Gertatu eta handik gutxira on line ikustean gaur egungo jardueren grabazioak, sendotu egiten da proiektuak Batzordearentzat eta erabiltzaileentzat duen garrantzia, bisitaldiak sorrarazten ditu eta, azken batean, ondarea berreskuratzeke eta salbatzeko xedea duen ekimen batek etorkizuneko ondarea estaltzen du. Errepositorio hau 2013aren bukaeran jarri zen abian.

2014aren amaieraren bukaera aldean, hona hemen atariaren gaineko datu batzuk:

- Batez beste, 3.500 bisitaldi jaso dira.
- Bisitaldien % 48 beste atarietatik datoz –Ateneuko atarietatik edo hirugarrenetatik– eta sare sozialetatik.
- 550 grabazio baino gehiago daude sarean ipiniak, eta 219 daude digitalizatuak, noiz argitaratuko. Hilean 15-20 grabazio digitalizatzen dira.
- Bertsio mugikorra 2014an kaleratu zen, eta martxoaren eta ekainaren artean bisitaldien % 18ren iturria izan da.
- Gehiena ikusi diren edukiek Kataluniako Mancomunitat-aren mendeurrenarekin dute zerikusia.

Emaitza horien argitan planteatuko dira etorkizunean bilakaera edo hobekuntza berriak. Digitalizazioaren erritmoak lehengo bera izaten jarraitzen du oraingoz. Azkenik, giza baliabideak erantsi zaizkio errepositorioari, haren garapena ondorengo proiektu honi lotuz: **@teneu hub**.

4. @teneu hub15

@teneu hub proiektua da aldaketa digitaleko aldi hau ixten duen azken fasea. Proiektu honek ere ez du baliabide handirik izan, eta horren orde lanak eta eginkizunak berregituratu eta berregokitu dira. Ekimena hiru lan-ildotan zentratu da:

- Eduki kulturalak zabaldu eta sortu, erakundearen jarduerak sustatuz eta jarduera horien edukiak (audioak, bideoak, irudiak...) sarean zabalduz. Web atari bat eta erabiltzaileek parte hartzeko espazio digitalak sortu.
- Administrazio elektronikoa bat sortu, bazkideei nahiz bazkideak ez direnei kudeaketak estranet baten bitartez erraztuz.
- Eduki kulturalen agente sortzaileen sare bat eratu, bazkideak informazioaren teknologietan eta 2.0. tresna nagusietan trebatu, aise balia ditzaten, eta, horrez gainera, parte hartzen duten jarduera kulturaletatik abiatuta eduki berriak sor ditzaten, erakundearen artxiboak aberastuz.

Ildo horiek 2013. urtean gauzatu ziren, webgune berri bat garatu eta kaleratu baitzen orduan. Webgune horretan era guztietako edukiak daude, gaurkoak eta iraganekoak, eta erakundearen beste proiektu digital batzuetatik sindikatu dira. Webgune hau, gainera, Hitzaren Artxiboaren ildo beretik, software librean dago (Drupal),¹⁶ eta hasieratik bertatik egon da edozein eratako tresna mugikorrenzat prestatua. Blog baten sarrera izan da proiektu honen baitako beste inplementazio bat, ondare berria sortzen duten eta dagoena aberasten duten edukien agenteen artekoa. Blog bakoitzaren erantzuleek, zeinak, partez, BABen lantaldeak sortuak baitira, dokumentazio digital berria sortzen dute, eta hura gorde egingo da edo ez da gordeko, nolako interesa duen.

Bigarren mailakoa dela pentsa daitekeen arren, BABek hartu duen jarrerak eta bete duen lidergo-paperak funtsezko eginkizuna betetzen dute edozein dokumentazio-zentroan, eta, hala, garrantzitsuak izan dira erakundearen baitan alor honetako baliabideak sendotzeko: langile gehiago erantsi da. Proiektu hau L'Arxiu de la Paraula izenekoaren aldi berean garatu da, eta, azkenean, beharrezko ezaupideak eman dizkie, sare sozialen alorrean, ondare digitala kudeatzeko ardura duten pertsoneri, mugikorraren egokitzapen nahiz zabalkundearen alorrean jardun. Gaur egun, zenbait kidek elikatzen dute edukiz webgune hau.

Aldi berean, aipatu diren errepositorioetan eduki digitalak berak posizionatzeko ere balio izan du proiektuak, izan eduki propioak nahiz kooperatiboak, webguneari guztiz lotuak geratzen baitira; zehatzago, bisitaldi gehiena duen ataletako bati, jardueren agendari. Webgunean agendak lehentasunezko lekua hartzen du, eta erabiltzaileek oso azkar jo dezakete hurrena programaturiko jardueretara. Jarduera bakoitza, oinarrizko datuak emateaz gainera –hizlaria eta curriculum, ordua, aretoa– hainbat errepositoriotako dokumentu digitalekin aberasten da. Dinamika honek informazio gehiago ematen dio erabiltzaileari, arreta erakartzen du eta hobetu egiten du errepositorioaren eta korporazio-atariaren web posizioa.

Azkenik, 2013an inauguratu zen webgune berriak % 61,9 bisitaldi gehiago izan zuen urte horretako uztail-abenduan 2012ko aldi berean baino. Era berean, Premi Ateneus 2013 saria jaso zuen, Kataluniako Ateneoen Federazioak emana, komunikabide berrien kategorian.

5. Konklusioak eta etorkizuneko ildo batzuk

Konklusioen artean, eta orain arte ikusitakoa laburtuz, ondoko puntu hauek aipatuko ditugu:

- Erakundearen aldaketa digitala dela medio, sareko edukiak ere aldatu dira BABen, bilduma berezi eta bakarren digitalizazio-politikak eta politika horiek izan dezaketen eraginaren zabalkunde definituz.
- Lantaldearen espezializazioak, eta, horri gehiturik, lantaldeak proiektu bakoitzaren ondoren eskuratu duen jakintza erantsiak, hainbat ekimen gauzatu ditu, eta egokitzapen-ahalmena eman die inguru ekonomiko konplikatueta zerbitzu eta proiektu berriak garatzeko.
- Arazo berak dituzten eta aukeren ikuspegi antzekoa edo hobea duten hainbat bazkideekiko lankidetzak –izan bazkide horiek administrazioak, enpresa

¹⁶ <https://www.drupal.org/>

multinazionalak nahiz enpresa ondaredunak– Interneteko prozesuak eta ikusgaitasuna hobetzen lagundu dio enpresari.

- Gaur egungo krisi-garaietan, iraganeko eta etorkizuneko ondareak egokitzea, kasu batzuetan, baliabideak mantentzen eta hobetzen lagundu duen estrategia izan da. Era berean, jardueren edukiak gaur dagoen ondarearekin aberastu direlarik, erabiltzaileen trafikoa areagotu da, ohiko bideetatik ez bailirateke errepositorioetara ailegatuko.

Datozen urteetan aldaketa honi eutsiko zaiola espero da, beste ondareekin edo funts-bildumekin, betiere edukiak edozein eratako gailuetan eskuragarri mantentzearen printzipioak gidaturik, sare sozialen eta erabiltzaileen parte hartzearen bitartez, erakundearen ondare lokalaren balioa azpimarratuz. Laburtuz, hiru ardatz hartzen dira gogoan: alderdi soziala, lokala eta mugikorra. Erakundearen ondare artistikoaren digitalizazioa eta zabalkundea izango dira ildo berriak, hala nola Wikipediaren GLAM proiektuetan esku hartzea eta, beste zerbitzu askoren artean, erabiltzaileari edukirik gogokoenak hautatzen utziko dion estranet bat sortzea.

Bibliografia:

Alcaraz Martínez, Rubén (2012): «Omeka: exposiciones virtuales y distribución de colecciones digitales», BiD: textos universitarios de biblioteconomía i documentació. 28. zkia. <<http://www.ub.edu/bid/28/alcaraz2.htm>>. [Kontsulta: 2012/10/27].

Burguillos, Ferran (2008): «M'exalta el nou i m'enamora el vell»: emprenent el canvi a la Biblioteca de l'Ateneu Barcelonès», Item: Revista de biblioteconomía i documentació, ISSN 0214-0349, 48. zkia. (Gener-Juny), 15-30.

Cassasas, Jordi (zuz.) (2006): L'Ateneu i Barcelona: un segle i mig d'acció cultural. Bartzelona: Diputació de Barcelona, RBA-La Magrana.

Crow, Raym (2004): A guide to institutional repository (2. ed.). New York: Open Society Institute. <http://www.soros.org/openaccess/pdf/OSI_Guide_to_Institutional_Repository_Software_v2pdf>. [Kontsulta: 2014/08/28]

Lamarca, Dolors; Serra, Eugènia (2005): «L'estratègia de la Biblioteca de Catalunya en projectes digitals», Item: Revista de biblioteconomía i documentació, ISSN 0214-0349, 41. zkia. (iraila-abendua), 41-53.

Montes, Sergi; Alcaraz-Martínez, Rubén; Vicente-Hernández, Lluís; Blanco, Mercedes; Comas, Mercè; Nieto, Laura; Amorós, Laia; Casas, Pablo; Álvaro, Elena; Bilbeny, Marta (2013): «El archivo de la palabra del Ateneu Barcelonès: un repositorio sostenible para la curación de contenidos», XIII Jornadas Españolas de Documentación FESABID'13. Creando valores, Toledo (España), 2013ko maiatzak 24 eta 25. [Hitzaldia]

Pérez, Karibel; Serra, Eugenia (2010): Repositori de preservació digital de la Biblioteca de Catalunya: informe descriptiu i de situació. Bartzelona: Biblioteca de Catalunya. <<http://www.recercat.cat/handle/2072/97251>>. [Kontsulta: 2014-08-28].

Vicente Hernández, Lluís (2012): «Projecte Almirall: posada en valor del patrimoni», BiD: textos universitaris de biblioteconomia i documentació, ekaina, 28. zkia. <<http://bid.ub.edu/28/vicente1.htm>> [Kontsulta: 2014-08-27].

Vicente, Lluís; Montes, Sergi; Burguillos, Ferran; Alcaraz, Rubén; Casas, Pablo (2011): «The Almirall Project: a portal of 19th century culture and thinking», IFLA Satellite Conference. Social Sciences Library Section (La Havana, Cuba). Social sciences libraries: a bridge to knowledge for sustainable development: 8-10 August, 2011. La Havana: IFLA. Social Sciences Library Section. <<http://hdl.handle.net/10760/16136>>. [Kontsulta: 2014/08/28].